


IRUDI ETA SOINUZKO ERREGISTROEN KONTSERBAZIOA

Maria Luisa Aizpuru

*Neurri egokiak
hartzten ez badira,
irudi eta soinuazko
erregistroak urte
gutxitan hondatuak
geldi daitezke.*



Denboraren eraginez, filmeak, bideoak, zinta magnetikoak eta oro har irudi eta soinuazko erregistroak zaharkitu egiten dira. Urteen iraganak sortzen dituen ezinbesteko kalteei aurre egiteko badago gaur egun bide bat: kopia digitala.

IRUDI eta soinuazko erre-
gistroak kolekzionatu eta
gordetzeko grina dutenek
ondotxo dakite denbora-
ren eraginak sortzen dituen kal-
teak. Legezko gordailu, filmoteka
eta fonotekatako arduradunek be-
ren gordailuetako edukia luzaroan
ongi kontserbatzeko ahalegin be-
rezia egin behar izaten dute.

Erregistroak luzaro kontserba-
tzeko zenbait neurri hartzen dira.
Biltegi eta gordailuetako atmosfe-
ra kontrolatu egiten da, hezetasu-
na eta temperatura zainduz. Irudi
eta soinuazko erregistro gehienak
material suhargarriz eginak dau-
dela kontuan izanik, sutearen aur-
kako neurriak hartzea behar-
beharrezkoa gertatzen da. Do-
kumentu hauek babesteko meka-



*Etokizunean
gordailuetako
irudi eta
soinuazko
dokumentu
guztiak
digitalizatu
egingo dira*

nismo eta sistema sofistikatuenak
erabiltzen dira.

Gordetzeko erabiltzen diren
sistema berezi hauei esker, zahar-
kikuntza atzeratu egiten
da, baina denboraren era-
gina ez da erabat ekiditen.

Filmoteka eta fonoteka-
tara maiz dokumentuak
(antzinakoak bereziki)
baldintza kaxkarretan hel-
tzen dira. Partikularrek
urte askotan gordeta izan
dituzten dokumentuak zer-
txobait hondatuta egon
daitezke, gordetzeko neu-
rri berezirik hartu ez dute-
lako edo erabilerarekin
kaltetu egin direlako.

Gainera, gordailu haue-
tan jasotzen diren errejis-
troak adin eta sasoi guz-
tietakoak izan ohi dira.
Teknologiaren beste garai
batean egindako filme eta
disco zaharrek, bere kon-
tserbazioaz gain, beste ara-
zo bat ere sortzen dute,
hots, dokumentu horiek
irakur eta ikuska ditzake-
ten teknologia zaharreko
tresneria ere ongi kontser-



XX. mende hasierako gramofonoa

batzearena, eta hau kasu askotan oso problematikoa gertatzen da. Hala ere, guztiz beharrezkoak dira. Izan ere ez da ahaztu behar gordailuen helburu nagusia bertan jasota dauden dokumentuak luzaro ongi ikusi eta entzuteko moduan mantentzea dela.


Lehenengo filmeak zelulosa nitratozkoak ziren. Material hau oso suhargarria izateaz gain, bere kasa su har dezake. Zuri-beltzeko filmeak egonkorak dira. Aldiz, kolorezko filmeetan kolorea degradatu egiten da. Filmeak kontserbatzeko biderik egokiena hutsan (kutxa estankotan) behe-tenperaturan gordetzea da, baina hau oso soluzio garestia gertatzen da.

Soinuzko erregistroei dagokienez, diska mota desberdinen ezaugarriek baldintzatzen dute beren iraupena. Biniloizko disko klasikoak adibidez nahikoa erresistenteak diren bitartean, azetatozko azalera duten disko metaliko zaharrak guztiz hauskorak gertatzen dira.

Banda magnetikoen kontserbaziorako materialaren kalitatea eta euskarriaren lodiera oso garrantzitsuak dira. Banda zenbat eta arinagoa eta euskarria zenbat eta meheagoa izan, are eta errazago hondatzen dira. Disko konpaktua da oraingoz arazo gutxienean sortzen duen disko-mota. Hala ere, izenburuak inprimatzeko erabiltzen den tintak arazoak sor ditzake.

Disko konpaktua goikaldean polikarbonato prentsatzuko plaka batez osatua dago. Zati trinkotu

hau metalizatu egiten da (aluminiozko estalkia), ondoren laka-geruza ipintzen zaio eta honen gainean izenburuak inprimatzen dira. Irakurketa, polikarbonato gardenezko geruza lodi samar honetan zehar egiten da. Disko arruntetan irakurketa diskoaren ildoak marruskatzen dituen diamantezko orratzaren bidez egin ohi da. Konpaktuaren kasuan diamantezko orratza ukiezinazko laser izpiak ordezkatu da. Horrela grabatu digitala hondatu gabe



Disko konpaktua. Bere ezaugarriengatik diska mota hau luzaro kontserbatzeko egokiena da

irakur dezake. Irakurketari dagokionez beraz, ongi babestua dago diska mota hau. Baina tintak aluminiozko zati metalizatuari atzekaldetik eraso diezaioke. Disko konpaktua komertzializatu zenean, teknikariek tintaren eraso goikaldetik gerta zitekeelakoan polikarbonatozko alderdia ongi babesten saiatu ziren, baina ez zuten aurrikusi tintak atzekaldeari erasan diezaiokeenik.

Irudi eta soinuazko erregistroak ongi kontserbatzeko lehen aipatutako neurriak hartzeaz gain,

etengabe zaindu behar dira. Egokiena erregistro kaltetuak gertatu aurretik kopia ateratzea izango litzateke. Gaur egun hala ere, ez da gordailuetako erregistroen kopia sistematikorik egiten.

Zenbait erregistroren kopia ateratzeak gainera, arazoak sor ditzake. Oso zaharkituta dauden erregistroetan adibidez, kopia ateratzeko lehenbizi irakurri egin behar da eta irakurtzea oso zaila eta are ezinezkoa gerta daiteke. Horregatik zenbait kasutan dis-

koak metalizatu egin behar izaten dira irakurri ahal izateko.

Ikerlariak erregistroen euskarria gutxien kaltetu dezaketean metodoen bila dihardute. Disko normalak ukitu gabe irakurri ahal izatea litzateke soluzioa, hots, konpaktuaren kasuan bezala laser izpiak irakurtzea.

Dena den, originalak akatsak baditu kopiak ere akatsak jasoko ditu. Garai batean kopistek egiten zuten lanaren antzekoa egingo lukeen sistema lortzea litzateke egokiena.

Platonek idatzi zituen eskuskribuak inoiz ez ikusi arren, hark idatzitakoa zehatz-mehatz irakur dezakegu gaur egun. Kopisten lan neketsuari esker lortu da hori. Hauen zeregina horixe zen hain zuzen ere: eskuskribu bat hondatzen hasten zenean originala zehaztasun osoz berridaztea. Digitalizazioaren bidez helburu berdina lor daiteke. Prozesu honi esker originala bezain kopia ona lortzea posible da, baldin eta erregistroa edo dokumentua oso kaltetua ez badago behintzat.

Erregistroak digitalizatuz prozesu berberari jarrai dakioko. Disko baten irakurketan akats bat gertatzen bada, konpaktuaren zati bat hondatua dagoelako adibidez, akats hori zuzendu eta originaleko informazioa bere osotasunean aurki daiteke. Informazio hori izan ere diskoaren beste leku batean egongo bait da.

Pentsa daiteke beraz, etorkizunean filmoteka, bideoteka, eta fonoteka nazionalako dokumentuak sistematikoki digitalizatuak izango direla. Oraindik hala ere, ez zaio horrelako prozesuari jarraitzen; alde batetik irudi-soinuen digitalizazioa behar bezala aurreratua ez dagoelako eta bestetik oraingoz oso garestia delako.

Digitalizazioarekin lor daitekeen beste gauza bat, informazio beraren tratamendua da; adibidez arraiatutako diskoaren “klok” soinu aspergarriak ezabatzea edo kanpoko zaratak kentzea. Possibilitate honek ordea puristen kontrako jarrera sortu du. Hauen eritziz erregistroen berezko akatsak errespetatu egin behar dira eta nahiz eta zenbait hobekuntza (goian aipatutakoak esate baterako) onartzeko prest egongo balira ere, oinarrizko dokumentuen ezaugarriak ez dira aldatu behar, hots, filme zaharrei kolorea eransterik edo disko zaharren kanpoko zarata kentzerik ez dago (jakina bait da azken kasu honetan tonu altuen eza zarata horiek disimulatu egiten dutela).